

Intxaurrondo



Pilota txapelketa martxan

Aitor Navarro (fnoa.: 943 288919)

hilaren 12an hasiko da Intxaurrondoko Pilota Txapelketa. Intxaurrondoko Pilota Elkarteak Iñaki Aldabalderekin omenez antolatzen duen txapelketaren bederatzigarren edizioa da aurtengoa. Guztira hogeita-zortzi bikotek parte hartuko dute, hamabi senior mailan, zortzi jubeniletan eta beste

zortzi kadetetan. Maila bakoitzeko lau bikote indartsuenak finalerdietako ligaxka jokatuzeko sailkatuko dira. Partiduak Intxaurrondoko frontoian jokatuko dira larunbatetan, 16.00etatik aurrera, eta igandetan goizeko 10.00etatik aurrera. Maila guztietako finalak egun berean jokatuko dira, apirilaren 16an.

Haur txokoa

Haur Txiki Bustintxiki aisialdi taldeak zenbait ekintza martxan jarri ditu hilabete honetan. Tailerrak, era guztietako jokak, irteerak eta abar egingo dituzte egunero, astegunetan, 17.30etatik 18.45etara. Izena emateko egoitzara joan behar da, 17.30etatik 20.00etara.

Emakumeak eta sexua

Intxaurrondo Berriko emakume elkarteak sexuari buruzko hitzaldi sorta antolatu du datozen asteetarako. Asteazkenero adituren batek hitz egingo du elkarteak Bustintxulo kaleko 15. zenbakian duen egoitzan. Hitzaldiak 15.30etan hasiko dira.



MAHALA baserriko esneki naturalak

- BEHI GAZTA FRESKOA
- YOGURRAK: NATURALAK • DESNATATUAK FRUTUDUNAK

Mahala baserria • IEABURU • Tfnoa.: (943) 673499

Parte Zaharra

Mamarro gaztea

Gurutze Jauregi (fnoa.: 943 215121)

martxoaren bukaeran "Mamarro" izeneko Parte Zaharreko gazte aldizkaria kaleratuko da. Gazteen tresna eta ahotsa izateko bitarteko baliagarria izan behar duela adierazi digute Xabik eta Jonek, Mamarro aldizkariaren sortzaileek. *"Mamarro aldizkariak auzoko gazte taldeen elkar ezagutza bultzatu nahi du, gazteok elkarrekin lan egin dezagun. Izan ere, gure auzoan ez dago gazteen hitza zabaltzen eta entzunarazten duen tresnarik"*.

Gehienbat euskaraz argitaratuko den aldizkari honek beste zenbait helburu ere baditu: Parte Zaharraren nortasuna indartu eta ezagutzera ematea, besteak beste. *"Parte Zaharra ez da parrandarako gunea soilik. Auzo bat da eta bertako izaera mantentzeko ezaugarriak sustatuko ditugu"*.

Bizpahiru hilabetero plazaratuko da eta hainbat atal

izango ditu: sexualitatea, erreportaje historikoak, editoriala, agenda, kirolak, elkarrietzeta eta abar.

Aldizkaria aurkezteko jaialdi bat antolatuko dute lehenengo alea ateratzen.

Aldizkaria ezagutu nahi dutenek gure auzoko tabernetan aurkitu ahal izango dute. Hala ere "Mamarro"k harrera egokia balu, 2.000 pezetako harpidetza bitartez jaso ahal izango litzateke.

Bestalde, parte hartu nahi duen auzotar gazte orok du aukera bertan aritzeko.

Mamarro izenaren zergatia

Izenari dagokionez, Aita Barandiaranen lanetan oinarritu dira izena asmatzeko. *"Bere esanetan mamarroak ipotxak ziren, laguntzaileak"*.

Aldizkarian parte hartu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan posta kutxatila honetara idatziz: 1651 P.K: 20.080 Donostia.

IZKIÑA

EDARITEGIA
JATETXEA

OTARTEKOAK
PINTXOAK

Fermin Calbeton 4
Tfnoa.: (943) 42 25 62
DONOSTIA

